

ERDI AROKO FILOSOFIA

EDUKIA:

1. **Sarrera: kristautasunaren sorrera, ezaugarriak...**
2. **Apologetika, patristika**
3. **Origenes**
4. **Origenes vs San agustin (fitxan)**
5. **San agustin**
6. **Pseudo-Dionisio**
7. **Eskoto**
8. **Erreformatik (oinarriak fitxan)**
9. **San Anselmo**

SARRERA

EA: Historikoki → Erromatar inperioaren erorketarekin Filofofikoki → San Agustinekin

DOKTRINA KRISTAUA- FILOSOFIA

- Eako Filosofia hemen kokatu → doktrina kristauaren markoak eman erreferentzia
- Lehenengo mendeetan filo-teologia ez bereizi. Gero fedea-arrazoien arteko banaketa bideratuko da. Gai filosofiko garrantzitsuak atera (lotura arrazoimena-fedea? Lotura filo paganoarekin? Lotura aurreko tradizio filosofikoarekin?) eta ikuspegi ezberdinak.
- Filosofia kristaua baita da agerkundea arrazionalki azaltzen. Norabide hau hartuz: sinistu behar mundua ulertzeko, eta fedea arrazoiean oinarrituta sendoagoa da.

ZERGATIK KRISTAUTASUNAK NAGUSITASUNA?

- Erromatar inperioaren erortzea, eta honek bere buruaz hausnartu, barne logikarekin bat
- Erlijio herrikoia → kristautasuna sortzean honen aspektu asko ez dira arrotzak biztanleentzat. Erromatarrek Erroma jainkozko proiektu gisa ikusi, unibertsaltasunaren printzipioa. Baina erlijio gehiago garai honetan herrian, eta denek ondo desberdindu ongia/gaizkia. Hala ere jende askorentzat oso erakargarria.
- San Pablo → kristautasunaren arrakastaren eragile handietakoa. Santiagoren kristautasuna Palestinan gelditu, baina Pablarena unibertsalizatu. San Pablobi predikazioa bultzatzen zuen, horrela predikazioa ere unibertsalizatu. Eliza ere honen eskutik sortu zen.

KRISTAUTASUNA

Bi iturri:

1. Itun zaharra → testu judutarrak, garai ezberdinetakoak eta mota askotakoak. Hebraieraz idatzita originala, baina guri grekoz heldu. Bertan genesisia, testu legalak...
2. ITUN BERRIA: grekoz idatzi ziren testuak, testu garrantzitsuenak (kontserbatu direnak gutxienez). Hemen zehaztu kristautentzat Jesus Nazaretakoa Jainkoa dela, juduentzat ordea soilik profeta.
Eduki doktrinal oso sinplea zen

Hirugarren iturria, doktrina elaboratzeko baliatu:

3. Neoplatonismoa → Filosofo edo kristauak doktrina kristaua osatzeko platon eta neoplatonismoa baliatu. Platonen ideiak ondo egokitu kristautasunari. Erromatar inperioa heltzen diren korranteak helenistikoak (polis eta gero inperio). Kritika doktrinala jasotzerakoan erantzun filosofikoa emateko baliagarria.
4. Beste korrante helenistikoak → estoikoak, epikurearrak, eszeptikoak. Kristautasuna sortzeak hauek nagusi baina goi klaseetan bakarrik. Herrian bestelako adierazpenak nagusi (kristautasuna adib.)

KRISTAUTASUNAREN OINARRIAK

SAN PABLOREN GUTUNAK

- Ezinbestekoak kristautasuna ulertzeko

- Ebangelioak baino lehen idatzia, horietan ez oinarritu.
- Jesusen bizitzari buruz gutxi, baina Jesus Nazaretekoa mesias zela aldarrikatu.
- Jesusen mezuan garrantzia, ez bizitzan → mezu teologikoa. Azaldu Jesus etorriko dela, badatorrela, eta justiziaren erresuma ekarriko duela. Salbazio mezua bidali eta berpiztea garai horretan gertatuko zela pentsatu. Ikusita ez zetorrela prestatzeko eliza sortzearen beharra azpimarratu zuen.

LAU EBANGELIOAK

1-Marcos 2-Mateo 3-Lucas 4-Juan Ebangelioak predikazioaren ondorioa

- Lehenengo hirurak sinoptikoak → garai berekoak. Mesiasnikoak dira (jainkoaren etorrera aldarrikatu)
- Juanek aparte idatzi → apokaliptikoa (munduaren amaiera aldarrikatu) (filosofikoagoa). Epaiketa unibertsala egongo da, gizaki oro izango da epaitua
- Laurek Jesusen bizitza eta heriotza kontatu. Datu fidagarri gutxi, baina denek bat egin: atxilotua, torturatua eta heraildua izan zela, eta 3 egunetara berzpiztu.
- Bestela 4ren artean ezberdintasun handiak, bide ezberdinak proposatu.
- Komunean ideia/ezaugarri ezberdinak: bienaventuranzas, pobreen erlijioa dela markatu; parabolak baliatu ikasketak emateko; ideia ezberdinak, adib txirotasuna edo maitasunaren inguruan; aita santua.

Ondorioz → 1. Mendeko kristautasuna dagoeneko erlijio berria eta unibertsalista zen [PABLOREN eliza unibertsala + JUANEN doktrina neoplatonismoa], ez judutarrena. Kristauek erromatarrengandik jazarpena jasan, eta honek arrakasta handia ekarri. Kristau-erromatar gerra hori mende askoren buruan kristauek irabazi.

HISTORIA HASIERAKO MENDEETAN

- I. mendean → erlijio berriaren forma hartu. Itun zahar eta itun berriak kontziliatzen saiatu. Santiago vs San Pablon, san pablo garaile.
- II-III. Mendetan → material horrekin doktrina korapilatsua osatu. Predikazioek garrantzi handia, eta horien arabera egituratu doktrina. Predikazioa eta unibertsalismoa dira Pabloren ekarpen handienak, eta bere garaipena ere hemen ageri zaigu; eta geroago eliza sendoaren sorreran.
- Erromatar inperioa ezartzen eta kristautasunarekiko jazarpen handia, eta askok Patos irlara ihes egin behar. Bertan platonismo eta pentsamendu helenistikoarekin harremanetan. Eragin handia.

APOLOGETIKA- PATRISTIKA

Kristautasunaren doktrinaren osatzea, prozesuak jarraitu Agus arte (300-500 urte iraun)

- Apologetika → hasierako ekarpenak
- Patristika → elizaren aitak (agus gailurra)
- ✓ Biek osatu doktrina kristaua

Kristautasuna ez filosofia → Erlijio bat: helburua salbazioa eta hau bide bakarra.

- Hasieran filosofiaren etsaiak, baina gero hau erabili kritikei (filo paganoari) aurre egiteko
- Agerkundearen bidez jainkoaren mezua onartu. Arrazoia fedea indartzeko baliatu
- Kristautasunari hoberen egokitzen zaizkion pentsamenduak:
 - o Platonismoa → lehen apologetak honen bultzatzaile, eta kristau bihurtuak platonismotik. Hiztegi filosofikoa txertatu (logos=kristo).
 - o Filosofia paganoa erabiltzen hasi, baina hau ez da nahikoa, erabilgarria soilik.
- JUSTINO, TEOLINO, TERTULIANO, ARNOBINO... garai honetan

PATRISTIKA- ALEJANDRIAKO ESKOLA (II-III. Mendetan)

Clemente:

- Patristika hasi, doktrina eraiki.
- Justino eta filo grekoaren eragin handia
- Agerkundera eta arrazoiak bat egin → jainkoaren logosak giza arima argitu
- Filosofiari garrantzi handia, funtsezkoa kristautasuna ulertzeko.
- Teologia zientifikoa osatzen saiatu → jainkoaren mezua filosofikoki babestu.

- Ezezkoren teologia egin (ez azaldu nolakoa den, nolakoa ez den baizik)
- Origenes (↓)

ORIGENES

Pentsamendu kristauaren autore garrantzitsuenetakoa. Elaborazio doktrinala egin.

- Garrantzia → testu sakratuak ezagutzen zituen, irakurketa alegorikoak egin eta doktrina kristaua eta neoplatikoa elkartzen saiatu.

GAIK/ OINARRIZKO KONTZEPTUAK

[Abiapuntua → biblia] 3 hipostasi → jainkoa, logosa (kristo), espiritu santua

1. Jainkoa
 - Jainkoa era platonikoan: sinpletasun absolutua
 - Ezezko teologia (ezin esan zer den, zer ez den baizik)
 - Ezin kategoriarik aplikatu → Arrazoimena, egia, izatea, potentzia, egintza baino haratago
 - Ezin da ez esan ez pentsatu, ezezaguna da
 - Ikuspuntu platonikotik bat ez datorrena garbitzen saiatuko da → jainkoa bere izaerak behartuta sortu, ongi mugagabea izanik mundu eta bere izakiak sortu, gaitzik gabe.
2. Logosa
 - Logos=kristo
 - Jainkoa dago, gero logosa. Baina jainkoa logosa da. Aitak sorturiko hipostasia
 - Lehenetsun logikoa (jainkoa-logos), baina sorreraren batasuna aldarrikatu
3. Espiritu santua
 - Trinitatearen dogman kokatu: hiru pertsona (aita, semea, espiritu santua)
 - Iturriaren metafora erabili → (irudia)
 - Ez da ezer sortzen, jarioaren bidez ulertu.
 - Trinitatearen dogmaren inguruan gatazkak (jainko 1 eta 3 pertsona?)
4. Izaki espiritualak
 - Izakiak jainkoak sortuak ezerezetik
 - Sortu eta askatasuna eman, askatasun hau gaizki erabili batzuek (jatorrizko bekatua)
 - Askatasunaren erabileraren arabera banatu, hauek jainkoaren argitik urrun-hurbilago: aingeruak, gizakiak, deabruak. Mundu eroriaren parte.
5. Berrerospena
 - Aspektu ontologiko nagusia, kristautasun helenistikokoaren funtsa
 - Izaki espiritualak logosa dute mundu eroriak izan arren, eta horri esker itzuli daitezke zerura. Logosa izaki-aitaren bitaterkari. Horrek gu salbatu eta jainkora itzuli
 - Berrerospena → mundu eroritik ihes egitea jainkoarengana itzuliz (hilezko, jainkozko)
6. Arima
 - Sorreran arima guztiak berdind sortuak, baina jatorrizko bekatuak gorputz bati atxiki zituen. Horregatik arima ezberdinak
 - Askeak, baina bere ekintzak jainkoaren graziaren menpe. Salbazioa graziari esker.
 - Apokatastasia defendatu → izaki/arima guztiak jainkoarengana bueltatuko dira.
 - Arima da benetako errealitatea, askatuko dena → askatzean hilezko, jainkozko.
7. Apokatastasia
 - Errealitate oro jainkotasun horren barnean kokatu → jainkoa bakarra, eta dena beregana itzuli (zirkulu bat, ixtean dena barnebildu)
 - Prozesu horretan teodisea (jainkozko justizia)



ORIGENESEN GARRANTZIA

Bere hermeneutikak exegesis biblikoa aberastu:

- Zentzu semantikoak → irakurtzeko era literala.
- Zentzu psiko/moralean → literaltasunetik aspektu moralak ondorioztatu.
- Zentzu alegoriko eta teologikoan → arima, kristo eta logosari dagokiona

Biblia exapla bibliaren edizioa berea

Platonismoarekiko hurbilpena

ORIGENES VS AGUSTIN (FITXA)

AGUSTIN HIPONAKOA

- Kristautasunaren doktrinaren gailurra
- Hasiera eman EAroko pentsamendu filosofikoari
- Patristika prozesuaren gailurra, platonismoa kristautasunean txertatzean. Bere eragina mendeetan luzatu→ krist. latindar mediecala sortu, EAroko paradigma zehaztu.
- 3 krisialdiren ondorioz sortu pentsamendu hauek.

3 KRISIALDIAK

- 1- Pertsonea
 - Gaztaroan interes filosofikorik ez. Zizeron eta filosofo estoikoarekin interesa piztu.
 - Manikeismoa hurbildu→ mundua deskribatu bi printzipio aurkarirekin (gaizkia/ongia)
 - Eszeptizismoa pasa, jakintza finkorik ez dagoela baieztatuz
 - Milaneko apezpikua + origenesen obra + testu biblioak ezagutu→ hauek era literarioan ez ulertu, sinboloz beterik baleude bezala ulertu. Eszeptizismoa gaingiditu
 - Neoplatonismoa hurbildu→ kristau bihurtu
- 2- Eliztarra
 - Eliza barruan gatazka doktrinala→Agusen doktrina aterako da garaile
 - Doktrina-instituzio inguruko eztabaidak elizan. 2 korronte:
 - o Donatismoa→ barneko kristautasuna, espiritualagoa, instituzio eta iherarkiatatik urrun. Kristau eredugarria martirra. Instituzioen aurrean beraien burua izendatu eliz duin gisa.
 - o Pelagianismoa→ doktrinaren inguruko eztabaiden barruan. Salbazioa lortzeko gizakiak ze ekintza egin? Erantzun ezberdinak giza askatasunaren inguruan, beraien defendatu pertsona bat kristaua izanik salbazioa lor dezakela, jatorrizko bekatua ukatuz, eta gizakia bere ekintzekin zintzoa izan behar dela defendatu
 - Horren aurrean Agusek→ eliza instuzionalista eta hierarkizatua defendatu, indarra erakundean ez fededuneari + bekatua eta graziaren doktrina indartzea defendatu. Gizakiaren ikuskera pesimista, garrantzia Jainkoan kokatu. Donatismo eta pelagianismoaren aurka.
 - Bere planteamenduaren atzean→ predestinazioaren ideia→ fedeari garrantzia
- 3- Erromatar inperioaren gainbehera
 - "Jainkoaren hiria" obra idatzi fededunen ondoezaren aurrean→ jainkoak berehala epaituko gaitu, laister baitator historiaren amaiera
 - o 1-10 liburuetan: paganismoaren aurka arrazional eta filosofikoki
 - o 11-22 liburuetan: jainko kristauari salbazioa soilik interesatzen zaio, mundua ez
 - Historiaren filo garatu→ gertatzen ari denaren azalpen teologikoa
 - Mundu honetan babesa izango dugula dioena mespretxatu. Gizakiaren txikitasuna azpimarratzen du. Baina historiaren amaieran gaitz guztiak amaituko dira.
 - Munduaren amaiera→ gerra bi hiriren artean: Lurreko hiria eta zeruaren hiria. Lurreko zurearen hiriko ordezkaria eliza katolikoa. Amaieran→ ongiaren garaipena, jainkoaren justizia eta historia zentzu teologikoa guztiz.

ASPEKTU FILOSOFIKOAK

1- ONTOLOGIA

Neoplatoniarra

Obraren helburu nagusia ez da filosofikoa soterologikoa (helb. erlijiosoak) → jakituria bi iturritatik eskuratzen da: Arrazoimena eta agerkundearen bidez, lehenengoa bigarrenaren menpe dagoelarik. Hau interesatu

2- EGIAREKIKO INTERESA

Egia ezagutu nahi→ honek jakituriak gain zorientasuna ere eman. Egia aurtzea jainkoaren nahia da, eta inplikazioa dakar gure bizitzako aspektu guztietan.

Nola heldu egia /ezagutza zihur batera? Gure baliabide intelektualak urriak, akatsdunak dira Baina gure ezagutzan gure bide intelektual akatsunen menpe ez dauden edukiak ikusten

ditugu, badaude gure adimenak gobernatzen ez dituen egiak. Gure senak ezin dituenak aldatu, eta hauei egokitzen zaie.

3- EZAGUTZAREN TEORIA

Platonen epistemologiaren aspektu bat interesatu gehien→ Oroimena gure ulermenak bere momentuan "ideien mundua" ezagutu zuela. Gure senean badira ezagutza enpirikoarekin zerikusirik ez duten egia unibertsal eta beharrezkoak, gure baliabide intelektualen menpe ez daudenak. → Honekin agus eszeptizismotik atera, egia badela sinistu

- Ondorioztatuko du→ "Si fallor sum" (kale egiten badut, banaiz)

Platonen bezala ezagutza mailak bereizi:

- Ezagutza sentigarria→ maila apalena, akatsduna. Arimari dagokio, ez gorputzari
- Benetako ezagutza→ objektu aldaezinen ezagutza.
- Hirugarrena, aurreko bien artean→ gizakiak epaitu errealtateak beste errealtate finko batetik abiatuta. Errealtate eredugarriari izaera absolutua eman.

Bere ezagutzaren teoria Platonengandik oso gertu→ dualismo epistemologikoa: bi mundu, eta zentzumenekiko mesfindantza. 2 munduetan 2 objektu mota ezberdinu

- Zentzumenezko objektuak→ giza ulermena baino gutxiago, akatsdunak. Gizakiak objektu horiek sor ditzake (adib. Irudimenaz)
- Benetako objektuak→ gizakiak ez ditu sortu, eta giza ulermenaren gainetik kokatzen dira eta ez daude honen menpe. Egia unibertsale ta beharrezkoak dira, eta gizaki guztiok partekatzen ditugu, denok aurkitzen ez ditugun arren. Unibertsaltasun epistemologikoa defendatu (denok gai ulertzeko jainkoarenak direlako)

Eszeptikoen aurkako argudioak:

- Printzipio logikoak
- Egia matematikoak
- Barneko inpresioa
- Bere bidaia espiritualaren abiapuntu barnean kokatzen du, eta esperientziak erakutsi ideia ukaezin batzuk daudela eta ez direla senak sortuak. Ideia horiek jainkoaren menpe kokatzen ditu. (Jainkoaren existentziaren froga 1)
- Eszeptikoen horren aurrean baieztatu gogo ideia guztiak faltsuak direla→ Agustinek: denak faltsuak badira banaizela frogatzen da "Si fallor sum". Existentzia/sum (existentzia propioa), bizitza (existitu + bizirik) eta ulermena (existitu + bizi+ hori ulertu) ideietan topatu ziurtasuna eta ukatu eszeptizismoa.

JAINKOAREN EXISTENTZIA FROGATZEKO ARGUDIOAK

1- Subjektu pentsatzailearen kontzientziatik abiatutako argudioa. Eszeptizismoaren aurka egiterakoan jainkoaren existentzia frogatzera heltzen da. Gizakiare barne zalantzetatik abiatu eta egia unibertsalak topatu. Ideia horiek ez gure senaren menpe, gure sena ideia horien menpe baizik.

Orduan... ideia horiek jatorria ez bada sena, zer? Gizakiaren adimen akatsduna, horregatik ezin ideia/egia horiek sortu→ unibertsaltasun eta beharrezkotasuna jainkoari dagozkio.

Ideia unibertsal eta beharrezkoetatik→ Jainkoaren existentzia frogatu.

2- Gizaki batek objektu edo ekintza bat epaitzean ideia edo eredu finko baten arabera egiten du, ete horrek eredu finko baten existentzia suposatzen du, Jainkoarena.

3-Unibertsuaren harmonia, naturaren harmonia, zerbaitek sortua izan behar (Jainkoa).

4-Froga soziologikoa, onarpen unibertsala dagoenez, gehiengoak onartzen du Jainkoaren existentzia, Jainkoa existitzen da.

AGUSTINEN EKARPENA MENDEBALDEKO TEORIAN

- Fedearena: kristau fededuna da
- Graziaren garrantzia: grazia kosifikatu eta elizak kudeatu sakramentuetan
- Esprezio sexuala: bekatua sexualizatu eta psikologizatu du
- Beldurra: predestinazioari
- Trinitatearen dogma
- Platonismoa eta kristautasunaren uztarketa

PSEUDO-DIONISIO

Bi iturri: 1. Testu sakratuak 2. Neoplatonismoa

Jainkoa nolakoa den deskubritzea bere helburua → dogmatika onartu, baina modu ezberdinetan ulertu dira bere testuak. Jende guztiari zuzenduta, baina era filosofikoan ulertu nahi bada, interpretatu behar.

JAINKOARENGANA HURBILTZEKO BI BIDEAK

Bi bideak tentsio + jario gisa ulertu

BAIEZKO BIDEA

- Gogoaren elementuak kontzeptu unibertsal gisa ikusten ditu. Gogoak bere barnean kontzeptu unibertsalak: jakituria, borondatea, argia, bizitza. Termino unibertsal hauen bidez gizaki-jainko harremana aztertu.
- Termino unibertsal horiek jainkoari ere aplikatu, baina ez gizakiari bezala, jainkoari era transzendentalean aplikatu era hertsian. Gizakia bere parte den heinean munduari ere eragin.
- Aplikazio ezberdin hauetan ez du aniztasuna ikusten → batasun absolutua baizik. Ez dira ezaugarriak, batasun sustantziala da.
- Jainkoaren perfekzio batzuk gizakiarengan topatu daitezke. Baiezko bidearearen arabera, termino horiek era transzendentalean aplikatu behar dira Jainkoari hurbiltzea suposatzen duelako, baina ez dira anitzak termino horiek.
- Batasun absolutuan ulertu → Jainkoari egin erreferentzia

EZEZKO BIDEA

- Kontrako bidea
- Gure barnean aurkitzen ditugun akatsak kendu: handikeria, sumindura, pasioak, neurrigabeko emozioak.
- Behin akats guztiak kenduta → Jainkoa aurkitu → Baina "ezezagunaren iluntasuna", hau da, ezin jainkoa guztiz ezagutu.
- Finean, bi bideek garamatzate "ezezagunaren iluntasunera", harantzago ezin daitekeelako joan eta Jainko transzendentala guztiz ezagutu edo berarengaino heldu.

Bi prozesuak → dialektikoak eta bietan mugara heldu.

Gelditzen den bide bakarra? Mistika

Beti mugitu tentsio batean → ortodoxia eta neoplatonismoaren bi poloen artean.

Gaitzaren existentzia ukatu → ongi eza da. Izatea = ongia

ESKOTO

Dionisoren eragina: obra garrantzitsuena → "De divisione naturae" (izadiaren zatiketa).

Bere pentsamenduan ikusi erdi aroko filosofian ematen den tentsioa (ortodoxoa vs pentsa askea)

Naturari buruz: Natura badirenak eta ez direnak da.

Badirenak. Zentzumenen bidez atzeman ditzakegunak

IZADI EDO NATURA 4 MODUTAN ULERTUTA

- [Natura quae creat et non creatura] → izadia sortzailea da eta sortua ez den aldetik
- [Natura quae et creatur et creat] → natura sortua eta sortzailea den aldetik
- [Natura quae creatur et non creat] → natura sortzailea ez eta sortua den aldetik
- [Natura quae nec creat nec creatur] → natura sortua eta sortzailea ez den aldetik

Ortodoxiak planteatutako arazo filosofikoak aztertu, ortodoxiatik kanpo batzuetan

- Jainkoa gauza guztien sortzailea eta ez sortua
 - o Izaki guztiak harengandik sortu, ezerezetik → haren bidez bizi
 - o Kausa finala → izaki guztiak perfekzio prozesura amaiera
 - o Jainkoa izaki horietan adierazten da, jainkoaren epifania dira
 - o Jainkoa ezagutu daiteke? Jainkoa ezagutzeko pseudodionisiren bideak erabiltzen ditu. Bi bideek toki berera eramaten: jainkora.
 - o Jainkoa ezin dugu ezagutu, soilik hurbildu gaitzke. Natura ulertzeko era horri ezin gure kategoriak gehitu, gure ulermen akatsduna gairatzen du.

- o Jainkoa transzendetea da, gure mundutik haratago dago.
- o Arazo teologikoa: Nola azaldu jainkoa transzendentea izanda ezerezetiko sorrera? → Kontakizun biblikoan arazo filosofikoa, baina salbatu nahi du biblia jakituria iturri delako. Sortzeak mugimendua suposatu, kategoria da eta beraz ezin diogu jainkoari egotzi. Beste modu batean ulertzen du: jainkoa eta sorreraren aurretik zer dago? Ez dago “aurretik”- ik jainkoa eta sorrera biak betierekoak dira, jainkoa bukatuko balitz denbora eta mundua, dena bukatuko litzatekeelako.
- Izadia sortzailea eta sortua den aldetik:
 - o Ideia arketipoak:
 - o (hasierakoak) jainkozko ideiak dira, jainkoaren gogamenean daudenak, sorturiko izakien esentziak dira
 - o Ideiak zergatik dira sortzaileak eta sortuak? Sortuak: jainkoaren gogamenaren fruitu direlako, jainkoaren menpe daude. Sortzaileak: sorturiko izakien esentziak direlako
 - o Ideia hauen menpekotasuna logikari, hau da prozesuari, dagokio. Jainkoa eta ideia arketipoak batera ematen dira. Menpekotasunaren arabera zerrenda: 1. jainkoa, 2. ideia arketipoak, 3. sorrera (lurtar mundua).
 - o Betierekotasuna eskatzen du planteamendu honek: gure kategorietatik kanpo hitz egin behar da (ez denborazko menpekotasunean).
 - o Ikuspegi logiko batetik lehentasun (jainkoa) eta menpekotasuna ematen direnez, esan daiteke ideia sortuak direla eta katea jarraituz sortzaileak ere badirela.